



Jolasian Oñatin

Umiak betik maitte izan dau jolasa. Entrenimenturako orain besteko komenientziarik ez eguenien be, majo moldaiten ziran neskatilla-mutikuak eskolatik kanporako astialdittan ahalik eta onduen pasaitteko. Gure ume-denporan ezkeben telebisiñorik, radixua etxe batzuetan bakarrik, eta kaleko “*kiroldegi*” bakarra plazako pelotalekua zan. Hala eta be, etzan imajinaziño larregi bihar herriko kale, plaza, plazuela eta kantoietan dibersiñoren bat asmatteko. Egixa da orduan gehixenetan traba haundirik etzala kalietan, kotxe-trafikua oso txikiña zalako.

Oraintxe letxe, plaza nagusixa eta pelotaleku ingurua ziran jolaslekurik egogixenak: pelotan edo futbolian egitteko, bizi-kletan hara eta hona ibiltteko, kartetan jokaketako eta beste hainbat gauzatarako. Eurixa egin ezkeru, berriz, kontzejupeia eta beste arkupeiak ziran estimauenak. Dana dala, beste milla bazter eta txoko be baeukain umiak jolaserako: Kale Zaharreko arbolea txikiña, Kanpantxo, Kolejialde, estaziño aldia, San Juan kalia, San Antue kalia, Zazpibideta, Mendiko-kale, Santa Marinako plazia, Patrue-kale, Etxaluze, Auzotxo, Portalekua, Itturritxo, Lekunbarri eta Tetuan, bestiak beste.

Horreik herri-barru klasikuan. Apur bat urtenda, urrin barik topau zeiken jolaserako leku aproposak: Kurtzetxotik aurrera arbolea haundixa, Torrealde eta Piñotxuak, San Martin eta Santa Lutzia, Jaumendi eta Altamira aldiak, Kanposantu inguru, edota Ugarkalde, Mediku-presa eta Usakoko igarilekuak. Baserri-auzuetako gazte-jentia euren jolastoki partikularak eukan. Araoztarrak, esate baterako, Ugastegi aldeko Txirikillalekuko zelaira igoten euen garizumako domeka-arratsaldetan **txirikillatan** egittera, jakiña. Kalian be egitten ei zan, baiña gure aurtxuan.

Baiña futbola eta pelotiaz aparte, makiñatxo bat jolas-klase ezagutu geben kalia nahiz auzuetan: adibidez, **harrapo-harrapoka**, **tenteka**, **txorro-morroka**, **pote-poteka**, **kaniketan** eta **txapetan** jarduten geben, edota **tronpuagaz**, **aruagaz** eta **patinagaz**. Mutikuen espezialidadiak izaten ziran honeik gehixen bat, nahiz eta neskatilla batzuk mutikuak duin abillak izan halako jolasetan. Neskatillak batez be **zankarranketan**, **soka-saltoka**, **sakaponetan**, **kastillotan** edo **txorro-fisian** ibiltten ziran. Jaixetan-eta, txorimaluekin batera **txantxiku-karrerak**, **zaku-karrerak**, **zintta-karrerak**, **itsulapiko-apurketak** eta antzerakuak izaten gittuan.

Gaurko fotografixiak antxiñako jolas horreitako bat erakusten dosku: mutikuak **tronpuagaz** jolasian Oñatiko plazan, XX. gizaldixaren bigarren hamarkadaren hasieran-edo, orain dala 90 bat urte inguru. Garaixa erabagitteko, mutikuen blusa eta erro-dan ziba edo tronpuori ezta, ez, atzo goizekua. Ezta hemengua bakarrik be. **Pieter Brueghel Zaharra**, margolari famauak duela 450 bat urte Flandesen pinttau eben koadro zoragarri batian tronpua ez ezik, gorago aittatu dogun beste jolas batzuk bat be agerketan dira: sakaponak, harrapo-harrapoka, aruak, txoro-morroka, eta beste asko.

J. E.

Erretratu Udaleko Argazki-fondokua da. Rexu eta Tere Letamendik eskuratu doskue argibide batzuk. Eskerrik asko!